

Genero-ikuspegia Gizarte Ekonomian: Euskal Autonomia Erkidegoko azterketa bat*The Social Economy from a Gender Perspective: Evidence from the Basque Autonomous Community*

Dara García Sancristán

Universidad del País Vasco (EHU/UPV). Facultad de Economía y Empresa (Gipuzkoa),
Departamento de Economía Financiera I, Donostia/San Sebastian, Gipuzkoa, Spain

Artitzar Erauskin Tolosa

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV). Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako Atala),
Ekonomia Aplikatua Saila, Donostia, Gipuzkoa, Spain

LABURPENA: Gizarte Ekonomiako entitateek enplegu egonkor eta kalitatezkoa sortu eta mantentzeko duten gaitasuna aurretik hainbat ikerketetan aztertu izan da. Hala ere, generoaren dimentsioa ez da izan lehentasunezko gai bat ez ikuspegi akademikoan, ezta esparru instituzionalean ere. Hutsune horri aurre egiteko, ikerketa eta ekintza gehiago behar dira, eta lan honek norabide horretan aurrerapauso bat eman nahi du.

Lan honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomia sektorearen egoera ekonomikoa eta genero-berdintasunaren egoera aztertzea da, alde batetik, Gizarte Ekonomiako entitateek Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian duen garrantzia identifikatuz eta, bestetik, emakumeek Gizarte Ekonomiako entitateetan duten presentzia zein parekotasun baldintzak ulertuz. Azterketa hau 2022ko datuetan eta Gizarte Ekonomiaren forma klasikoetan —kooperatiba eta lan-sozietatea— oinarrituta gauzatu da.

Ondorio nagusien artean, azpimarratzekoa da: alde batetik, emakumeen presentzia Gizarte Ekonomia sektoreko lan-merkatuan % 45 ingurukoa bada bataz beste, zerbitzu eta industria sektoreek errealitate ezberdinak erakusten dituzte; bestetik, Gizarte Ekonomiaren forma klasikoetan soldata-arrakala % 18,5ekoa da, bataz beste, ekonomia orokorrean baino baxuagoa; eta, azkenik, emakumeen presentzia zuzendaritza-postuetan, orokorrean, gizonezkoena baino txikiagoa da. Beraz, Gizarte Ekonomiak genero-berdintasunaren sustapenean eragin positiboa izan arren, erronka batzuk daude oraindik konpontzeko, bereziki zuzendaritzan postuei dagokionean baita ordainketei dagokionean ere.

Gako-hitzak: kooperatibak, lan-sozietateak, enplegua, emakumezko enplegua, soldata-arrakala.

ABSTRACT: The capacity of Social Economy entities to create and maintain stable, high-quality employment has been examined in numerous previous studies. However, the gender dimension has not been a priority issue, either in academic research or in institutional agendas. To address this gap, further research and action are needed, and this paper seeks to contribute to that direction.

The aim of this study is to analyse both the economic situation of the Social Economy sector in the Basque Autonomous Community and the state of gender equality within it. Specifically, it seeks, on the one hand, to identify the importance of Social Economy entities in the economy of the Basque Autonomous Community and, on the other, to understand women's presence in these entities and the conditions of equality they encounter. The analysis is based on data from 2022 and focuses on the classic forms of the Social Economy—cooperatives and worker-owned companies.

Among the main findings, it is noteworthy that, although women's overall presence in the Social Economy labour market is around 45%, the services and industrial sectors display distinct realities. Moreover, the average gender pay gap in the classic forms of the Social Economy is 18.5%, lower than that of the general economy. Finally, women's representation in managerial positions is, overall, lower than that of men. Therefore, while the Social Economy has a positive impact on the promotion of gender equality, several challenges remain, particularly with regard to leadership positions and pay equity.

Keywords: cooperatives, worker-owned companies, employment, female employment, gender pay gap.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Artitzar Erauskin Tolosa. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV). Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Gipuzkoako Atala), Ekonomia Aplikatua Saila, Donostia, Gipuzkoa, Spain – artitzar.erauskin@ehu.eus

Nola aipatu / How to cite: García Sancristán, Dara; Erauskin Tolosa, Artitzar (2025). «Genero-ikuspegia Gizarte Ekonomian: Euskal Autonomia Erkidegoko azterketa bat»; 251 - Enpresa eta Ekonomia aldizkaria, 1, 39-58. (<https://doi.org/10.1387/251eea.28296>).



1. SARRERA

Gaur egun, Gizarte Ekonomia (GE) eredu alternatibo gisa kokatzen da ekonomia kapitalista tradizionalaren aurrean. Langabezia, gazteen prekarietatea eta emakumeen diskriminazioa bezalako erronken aurrean, GEFK aukera berriak eskaintzen ditu lan-merkatuan. Bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE-an), kolektibo kalteberentzako aukera baliotsua bihurtu da, bai enplegu inklusiboaren bidez, bai gizarteratze aktiboaren bidez (Chavez & Monzón, 2017).

XIX. mendeko kooperatibismoaren mugimendua GEren aitzindari bezala jo daiteke, gaur egun ezagutzen dugun kontzeptuaren oinarriak eta printzipio nagusiak lehen aldiz ezarri baitzituen. Hasieratik, GEFK pertsona jarri du erdigunean, eta bere jardura ekonomiko eta sozial guztietan kapitalaren aurretik helburu sozialak lehenetsi ditu (Monzón & Chaves, 2012). Halaber, barne- eta gizarte-elkartasuna sustatzen ditu, tokiko garapenarekin eta komunitatearekin konpromisoa hartuz (Defourny & Nyssens, 2010). Azken finean, GEFK gizartean konpondu gabeko arazoei eta asetu gabeko beharrei konponbide bat ematea du helburu. Horrenbestez, GE osatzen duten erakundeak gizarte zibil antolatu gisa ulertu daitezke, Estatuak, administrazio publikoek eta enpresa-sektore tradizionalak behar bezala erantzun ez dieten erronkei aurre egiteko sortuak baitira (Chaves & Monzón, 2008).

GE osatzen duten erakunde motak ugariak dira, eta bi multzotan banatu daitezke: alde batetik forma klasikoak (GEFK), kooperatibak eta lan-sozietateak barneratzen dituenak, eta bestetik, beste forma batzuk (GEBF), hala nola fundazio eta elkarteak, gizarteratze enpresak eta enplegu zentro bereziak. Bakoitzak bere ezaugarri propioak izanda ere, denek helburu berdina dute: asetu gabeko gizarte arazoei konponbide bat ematea. Lehenengo multzokoak, merkatuko azpisektorean aurkituko ditugu, izan ere, merkatuan parte hartzen dute, salmenten gehiengoa bertara bideratuz, ekonomikoki esanguratsuak diren prezioak erabiliz, eta batez ere, haien bazkideen beharrak asetzeko sortuak dira. Bigarren multzoan aldiz, irabazi asmorik gabeko entitateak aurkitzen dira, non posibleak izatekotan ezin izango dituzte bazkideen artean banatu. Multzo honetan, egitura demokratikoa ez duten erakundeak barneratu daitezke, interes orokorreko ondasunak eskaintzen dituzten heinean.

Lan honek GEren entitateen ezaugarriak jasoko ditu, lehenik eta behin forma juridiko nagusien tipologia eskainiz. Ondoren, EAE-ko GEren egungo egoerari erreparatuko zaio emakumeek GEFKo forma klasikoetan duten parte-hartzean sakontzeko. Horretarako, lan hau bibliografia espezializatua eta Eusko Jaurlaritzako GEren Zuzendaritzak argitaratutako estatistika datuetan oinarrituko da¹, besteak beste, GEren estatistika eta aurrerapena (2020-2021) eta GEren estatistika eta aurrerapena (2022-2023) txostenetan, 2022 eta 2024 urteetan argitaratuak, hurrenez hurren.

Lanaren egiturari dagokionez, hurrengo atalean, EAE-ko GEren mugaketa teorikoa eta sektore horretan biltzen diren erakundeen sailkapen orokorra jasoko da. Hirugarren atalean, GE osatzen duten erakundeak ezaugarriak aztertuko dira, EAE-ko zifra orokorrak kontuan hartuta, eta erakunde garrantzitsuenen definizioa, betekizunak eta oinarritzko kontzeptuak zehaztuko dira. Laugarren atalean, GEFKo adierazle nagusien azterketa egingo da, arreta berezia jarrita emakumeek sektoreko entitateetan duten presentzian zein parekidetasun egoeran. Azkenik, bosgarren atalean, lanaren ondorio nagusiak laburbilduko dira.

¹ Azpimarratu behar da Eusko Jaurlaritzak aipatu estatistikak bi urtean behin argitaratzen dituela eta eskuragarri dauden azken datuak 2022 urtekoak direla.

2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GIZARTE EKONOMIAREN MUGAKETA ETA ERAKUNDE MOTA NAGUSIAK

GEren mugaketa teorikoari dagokionez CIRIECek eskaintzen duen definizioa da gaur egun instituzionalki onartuena eta babestuen. Adostasun politiko eta zientifiko zabal batek onartutakoa (Monzón, 2010a, 2010b) baita Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeak (CESE) ere definizioa honek GE bi azpisektore bereizten ditu: i) alde batetik, merkatu-azpisektorea zehazten du non erakunde tradizionalenak jarduten duten, hau da, salmenta-prezio ekonomiko esanguratsuekin ekoizten duten erakundeek osatzen dute (Chaves eta Monzón, 2008; Monzón eta Chaves, 2012) eta ii) bestetik, merkatuaz kanpoko azpisektorea zeinetan irabazi-asmorik gabeko erakundeek jarduten duten (Pérez de Mendiguren *et al.*, 2009; Etxezarreta eta Morandeira, 2012), hau da, produkzioa doan edo prezio ekonomiko esanguratsurik gabe eskaintzen duten ekoizleek osatzen duten azpisektorea eta gizarte-ekintzako «Hirugarren Sektoreko» erakunde guztiak biltzen ditu nahiz eta hauek egitura demokratikorik izan ez, interes orokorreko edo lehentasunezko ondasunak eskaintzen dituzten heinean (Chaves eta Monzón, 2008; Monzón, 2010a, 2010b).

GEren baitako erakundeen kontzeptualizazio zehatza egitean Monzón (2010a, 2010b) dionez erakunde bat GEFKo merkatu azpisektoreko erakunde moduan zehazteko funtsezkoa da erakunde horren gizarte-onurak erakundearen xedearen zein balio demokratiko eta parte-hartzailearekin definitzen direla ziurtatzea. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen kasuan, Monzón (2010a; 2010b) adierazten du, nahiz eta gehienek jardun demokratikoa izan eta ekonomia-jarduera garatu, esate baterako bereiztu egin behar direla gizarte-ekintzako erakundeak eta aisialdia helburu duten erakundeak; azken hauek, nahiz eta gizarte-onura ukaezina izan, eztabaidapean baitaude GEren baitan sartzeko orduan.

Hortaz, CIRIECen ustez GEren definizioak ez luke irizpide juridiko edo administratiboetan oinarritu behar erakunde bat GE Unibertsokoa den edo ez zehazterakoan, aldiz erakundearen jokabidea aztertutik behar luke (Monzón eta Chaves, 2012: 23). Ikuspegi honek lotura estua du enpresa sozialak eta ekonomia solidarioa bezalako kontzeptuen sorrerarekin (Pérez de Mendiguren *et al.*, 2009; Etxezarreta eta Morandeira, 2014), eta maila instituzional/legalera ere iritsi da, 5/2011 Legearen bidez (Etxezarreta eta Morandeira, 2012).

EAE-ko GEren egungo konfigurazioari dagokionez, ezinbestekoa da haren ibilbide historiko eta esperientzia enpresariala aintzat izatea, hots, kooperatiben eta lan elkartuaren tradizioa sendoa izan dela ezin da ahaztu. Historikoki, euskal GE mugimendu kooperatiboari oso loturik egon da, nagusiki, 1950eko hamarkadako Arrasateko esperientzia kooperatiboaren eraginari esker. Hala ere, hori ez da euskal GEren adierazpen bakarra: 1970eko hamarkadan, industria-krisiaren testuinguruan, lan-sozietateak sortu ziren langileen autoantolaketa modura, beren enpresak salbatzeko helburuarekin. Aldi berean, enplegu-zentro bereziak eta, 1990eko hamarkadatik aurrera, laneratzeko enpresak garatu ziren, kolektibo ahulenei lan-aukerak eskaintzeko (Etxezarreta-Etxarri, 2021). Azken urte hauetan, GEFKo erakundeak federazio eta sare ezberdinen bidez antolatu dira, eta 2008an sortutako GEren Euskal Behatokia (GEEB) prozesu horren mugarri izan zen. Haren ondorengo urratsa izan zen Euskal GEren Sarea (EGES) zeina familia guztien ordezkaritza bateratzeko asmoz 2015ean sortu zen.

GEren Euskal Behatokia, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) GE eta Zuzenbide Kooperatibo Institutuan (GEZKI) baitan kokatua dago, eta CIRIEC-Espainia eta CIRIEC-Internacional sareetako kide da. Behatokiak CIRIECek egindako definizioa bere egiten du, baina euskal ekonomia sozialaren ezaugarrietara egokituta. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailek argitaratzen duen EAE-ko GEren bihurtzeko estatistika txostenetan erakundeak forma klasiko eta beste forma batzuetan sailkatzen baititu. Ondorioz, CIRIEC eta Eusko Jaurlaritzaren eta Lan eta Enplegu Sailaren irizpideak

bateratuz euskal GE osatzen duten erakundeen egitura ondorengo 1. Taulan jasotzen den moduan eratuko litzateke.

1. Taula. EAE-ko Gizarte Ekonomiaren erakundeen sailkapena

		Gizarte Ekonomiako entitateen forma	
		Forma Klasikoa	Beste Forma Batzuk
Gizarte Ekonomiaren azpi-sektorea	Merkatuko-azpi-sektorea	Kooperatibak Lan-Sozietateak	• Laneratze enpresak • Enplegu zentru bereziak • Nekazaritzako eraldakuntza-baltzuak • Arratzaleen kofradiak • Merkatuko beste ekoizle pribatuak (elkarteak, fundazioak, mekatal sozietateak) • Borondatezko Gizarte Aurreikuspen Erakundeak • Gizarte Ekonomia Enpresen Berme Sozietateak
	Merkatuko kanpoko azpi-sektorea		• Gizarte-ekintza elkarteak • Gizarte-ekintza fundazioak • Etxeen Zerbitzura dauden beste irabazi-asmorik gabeko erakunde batzuk

Iturria: Egileek egina.

2.1. Gizarte ekonomiaren baitako erakundeen forma klasikoak: kooperatibak eta lan-sozietateak

2.1.1. Kooperatibak

Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak (ACI) honela definitzen du kooperatiba bat zer den: «pertsonek elkarte bat, borondatez elkartu dena haien beharrian eta asmo ekonomiko, sozial eta kulturalak asetzeko jabetza bateratuko eta kudeaketa demokratikoko enpresa baten bidez» (ACI, 1996:17).

Aliantzak 1995ean Manchesterren ospatutako Mendeurreneko Biltzarrean, Kooperatiben Nortasunari buruzko Adierazpena egin zen, eta bertan agertzen den definizio horrek historian zehar kooperatibatza hartu izan denaren ildoei jarraitzen die, kooperatibismo modernoaren jatorritik, pertsonen eta enpresa ekonomikoaren aldi bereko elkarte gisa ulertuz. Aldi berean, definizioan sartzen ditu kooperatibaren ezaugarri funtsezkoenak eta bereizgarrienak: borondatezkotasuna, jabetza bateratua eta kudeaketa demokratikoa. Gainera, kooperatibaren asmoak, ekonomikoak ez ezik, sozialak eta kulturalak ere badirela adierazi du. Izan ere, kooperatiba, hasiera batean, premia komun bat modu partekatuan betetzeko baliabide bat da, aukeren edo aukerarik ezaren alternatiba, eta «indarraren» lorpena «batzearen» bidez eskuratzearen esaldiaren beste aplikazio praktiko bat (Martínez, 2015).

Horrela, kooperatiba guztiek ondorengo printzipioetan oinarritzen dute haien jarduerak (ACI, 1996): 1) borondatezko atxikipen irekia, 2) kudeaketa demokratikoa, 3) bazkideen partaidetza ekonomikoa, 4) autonomia eta independentzia, 5) hezkuntza, prestakuntza eta informazioa, 6) kooperatiben arteko lankidetzak eta, 7) komunitatearekiko interesa. Printzipio horiek ez dira elkarrengandik independenteak, euren artean arinki lotuta daude: izan ere, bat alde batera uzten denean, denak ahultzen dira (ACI, 1996). Hau da, printzipio guztiak errespetatu behar dira eta kooperatiben jardueran egon behar dute, eta kooperatiba batek printzipioen bat betetzen ez badu, gainerako printzipioak ahuldu

Genero-ikuspegia Gizarte Ekonomian: Euskal Autonomia Erkidegoko azterketa bat*Dara García Sancristán, Artizar Erauskin Tolosa*

egingo dira. Ez-betetze horren garrantziaren arabera, gerta daiteke entitate hori jada ez sartzea kooperatiba-identitate deitutakoaren barruan, eta beste forma juridiko mota batekin antzekotasun handiagoa izatea (Hernández, 2021).

Kooperatibak sortuak izan ziren jardueraren arabera sailkatu daitezke eta horrenbestez ondorengo bi kooperatiba mota bereizten dira: ekoizpen kooperatibak eta kontsumo kooperatibak. Lehenengoak, ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko kooperatibak, lanbide edo jarduera ekonomiko bera egiten duten pertsonak biltzen ditu, edo, besterik gabe, helburu bera dutenak, beren baliabideekin artikulu jakin batzuk ekoizten dituztenak edo zerbitzuren bat zuzenean ematen dutenak, irabaziak kooperatibisten artean banatuz. Hemen aurkitu ditzakegu, adibidez, industria- edo artisau-ekoizpeneko kooperatibak, nekazaritza eta abeltzaintza, arrantza zein merkataritza kooperatibak (Fernández, 2006:240).

Bigarrenagoak, kontsumo kooperatibak, ondasunak eta zerbitzuak lortzea du helburu, eta beren helburuak gara ditzakete handizkako erosketen bidez lortzen dituzten deskontuak aprobetxatuz, produktuak erosketa-kostua proportzio txiki batean handituta (eragiketa-gastu orokorrak estaltzeko) salduz bazkideei; edota produktuak merkatuan prezio arruntetan salduz, irabaziak bazkideen artean banatuz, bakoitzak egindako erosketa-proportzioaren arabera. Kooperatiba mota hau hainbat arlotan garatu daiteke, hala nola, elikaduran, farmazian, jantzietan, altzarietan, etxebizitzan eta abarretan. Nolanahi ere, kooperatiba horien helburua kontsumitzailearen interesa merkatariairen eta bitartekariaren interesaren gainetik jartzea da (Fernández, 2006:240).

Aipatutakoez gain, komunitate eta enpresa bereko kide izan daitezkeen pertsona talde batekin eratzen diren aurrezki- eta kreditu-kooperatibak ere barneratu daitezke talde horretan. Aldizka aurrezteko antolatzen dira elkarrekiko kreditu bat sortuz, eta kreditu horretatik beren aurrezkien gaineko maileguak eskatzeko aukera ematen zaie. Kobratzen diren interesak txikiak dira, eta merkataritza-bankuek emandako kredituetan ematen diren erabilera-kostu handiak ezabatzen dira (Fernández, 2006:240).

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko 11/2019 Kooperatiben Legeak kooperatiben tipologiaren eguneratze garrantzitsua egiten du, kooperatiba-ereduen sailkapen juridiko argitu eta eguneratua eskainiz. Legeak, batetik, lan-elkartuko kooperatibak definitzen ditu, non bazkide langileek jarduera ekonomikoaren ardatza osatzen duten; eta, bestetik, kooperatiba mistoak, bazkide kooperatiboen eta kapital-bazkideen parte-hartzea uztartzen dutenak. Era berean, arauak aitortzen du beste klase estatutario batzuk ere posible direla —legean aurreikusitako ereduen analogiaz eta kooperatibaren izaera bermatuta—, eta horien artean sartzeko dira, esaterako, kooperatiba juniorrak, hezkuntza eta parte-hartze kooperatiboa sustatzeko sortuak. Tipologia horiek guztiak kooperatiba-ereduen malgutasuna eta egokitzeko gaitasuna indartzea dute xede, jarduera ekonomiko eta sozial anitzetara egokitzeko.

2.1.2. Lan-sozietateak

Lan-sozietateak merkataritza-enpresa pribatuak dira, elkartasun- eta autokudeaketa-printzipioetan oinarritzen direnak, enplegu egonkorra sortzeko edo mantentzeko helburuarekin sortuak, eta haien jabetza gehienbat bazkide langileena da (Cuadrado & Ciruela, 2014).

Mota horretako enpresetan, Espainian indarrean dagoen Lan-Sozietateei buruzko 44/2015 Legearen arabera, kapital sozialaren gehiengoa gutxienez (% 51), bertan zerbitzu ordainduak pertsonalki eta zuzenean ematen dituzten langileen jabetzakoa izan behar da, lan-harreman mugagabe baten arabera. Horretaz gain, bazkideek ezingo dute kapital sozialaren herena baino gehiago ordezkatzeko duten akzio edo partaidetza sozialik izan. Salbuesten dira Estatuak, autonomia-erkidegoak, toki-erakundeak edo erakunde horietako edozeinek partaidetutako sozietateak. Hau da, erakunde publi-

koen partaidetzak muga hori gaindi dezake betiere kapital sozialaren % 50era iritsi gabe. (Lan-sozietateen 44/2015 Legea, 1.art.). Honez gain, Morales *et al.* (2008) autoreek lan-sozietateen hurrengo ezaugarriak azpimarratzen dituzte:

1. Implikazio handiko erakundeak dira, non kideek enpresaren kapitalari egiten dioten ekarpenaren araberako parte hartzen duten, ez bakarrik finantzetan eta informazio- eta erabaki-eztabaidetan, baita benetako fluxuetan ere, ekoizpen-faktoreen hornitzaile gisa ere jarduten dute zenbait kasutan, lan-hornitzaile gisa.
2. Forma juridikoari dagokionez, sozietate mugatu edo anonimo gisa jarduten dute, eta «langileen jabe» kalifikazioa lortzeko baldintza jakin batzuk bete behar dituzte. SL eta SA batekin desberdintzen duena langileen partaidetza kapitalean da, hau da, lan-sozietateetan oinarritzko baldintza kapitalaren % 51 bazkide langileek izatea da, eta langile horiek zuzenean eta pertsonalki eskaintzea enpresari ordaindutako zerbitzuak lan-harreman iraunkor batean.
3. Lege esparrutik ere hainbat murrizketa eratortzen dira enpresaren kapitalaren banaketari mugak ezarri. Adibidez, langile batek ezingo du kapitalaren herenaren jabe izan, eta kapitalaren gehiengoa, aipatu bezala, beti langileen jabetzan egon beharko da. Enpresaren kide ez diren langileen lana ere mugatzen da, izan ere, kontratu finkoa duten langile horien lana ezin izango da urtean % 15-25 baino handiagoa izan.

2.2. Gizarte ekonomiaren baitako erakundeen beste forma batzuk

Multzo honetan, Fundazioak, Enplegu Zentro Bereziak, Gizarteratze Enpresak, Elkarateak, Arrantza-leen Kofradiak eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) aurkitzen dira. Dena dela, soilik lehenengo laurak landuko dira, EAE-n horiek baitute garrantzia handiena hurrengo ataleko zifrek erakusten duten moduan.

2.2.1. Elkarateak eta Fundazioak

Fundazioak eta Elkarateak, funtsean, bi figura juridiko desberdin dira (Calderón, 2004:165). 2002an, irabazi-asmorik gabeko sektoreko erakundeen garrantzi, gizarte-kezka eta kontrol-premia handiaren ondorioz, elkarate eta fundazioen inguruan hiru lege argitaratu ziren:

1. 1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Elkartzeko Eskubidea arautzen duena.
2. 50/2002 Legea, abenduaren 26koa, Fundazioei buruzkoa.
3. 49/2002 Legea, abenduaren 23koa, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgorako pizgarriei buruzkoa.

EAE-n ere badaude fundazioak eta elkarateak arautzen dituzten legeak: 7/2007 Legea, Euskal elkaratei buruzkoa, eta 9/2016 Legea, Euskal fundazioei buruzkoa. Lege horietatik ondoriozta ditzakegu bai elkarateen bai fundazioen definizioak:

Fundazioak, irabazi asmorik gabe eratutako erakundeak dira, sortzaileen borondatez beren ondarea interes orokorreko helburuak betetzera lotuta dutenak modu iraunkorrean. (50/2002 Legea, Fundazioei buruzkoa, 2.art.)

Elkarateak, helburu edo jardura kolektibo jakin bat modu egonkorrean garatzeko eratutako pertsonen borondatezko taldeak dira, demokratikoki antolatuak, irabazi-asmorik gabekoak eta Estatuarekiko eta enpresa klasikoekiko independenteak, formalki behintzat (Calderón, 2004).

Genero-ikuspegia Gizarte Ekonomian: Euskal Autonomia Erkidegoko azterketa bat*Dara García Sancristán, Artitzar Erauskin Tolosa*

Horrela, bi erakunde hauen arteko desberdintasun nagusienak ondorengoak dira: 1) ondarearen inguruan, ondasun-multzoak eta pertsona-multzoak desberdintzen dira. Fundazioetan ondare-educia nagusitzen da, eta elkarteetan, berriz, eduki pertsonala, 2) interes orokorreko helburuei dagokionean, fundazioak legez interes orokorra izatera behartuta daude, eta elkarteak berriz, interes orokor, partikular edo kolektiboa izan dezake, betiere legezkoa izanik, 3) barne-funtzionamenduari dagokionez, elkarteetan funtzionamendu demokratikoa gailentzen da, bazkideen borondatearen menpe daude erabakiak. Fundazioetan aldiz, sortzailearen borondatearen menpe dago barne-funtzionamendua, eta ekarpenak egiten dituzten pertsonak entzunak izan baitaitezke ere, ez dute erabaki ahalmenik izango, eta 4) nahiz eta bi erakundeek independenteak izan behar duten, fundazioek interes orokorra helburu izanik, Administrazio Publikoak haren gainean nolabaiteko kontrola izan behar du interes orokorra bermatzeko dela ziurtatzeko. Elkarteetan kasuan, aldiz, ez da beharrezkoa izango Administrazioaren kontrola (Calderón, 2004:166-168).

2.2.2. Enplegu Zentro Bereziak

Enplegu Zentro Berezien helburu nagusia ondasunak edo zerbitzuak ekoizteko jardura bat egitea da, merkatuko eragiketetan aldi-aldi parte hartuz. Aldi berean, desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu ordaindua bermatzea dute helburu, izan ere, pertsona horien kopuru handiena enplegu-erregimen arruntan sartzeko bidea bihurtu baitira.

Entitate hauek, dibertsitate funtzional-dun langileak lan munduratzeko laguntzeko balio duten enpresak dira, hau da, zubi modura jarduten dute. Langile guztien % 70 gutxienez dibertsitate funtzional-dun langileek osatuko dute, eta hauen desgaitasuna % 33koa izan behar du gutxienez.² Gainera, laguntza-unitateen bidez, desgaitasuna duten langileek behar dituzten egokitzapen pertsonal eta sozialeko zerbitzuak eman beharko dituzte, beren inguruabarren arabera eta erregelamendu bidez ezarritakoaren arabera. Hau, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan arautzen da, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duena, 43-46.artikuluetan.

Enplegu Zentro Bereziek desgaitasuna duten pertsonen ordaindutako enplegua errazteaz gain, etengabeko prestakuntza eta laguntza bermatzeko dute beren bizitza pertsonalean eta sozialean, enpresa arruntera igarotzea sustatuz. Enpresa hauek, merkatuan lehiatzen dute beste edozein enpresa bezala, eta oso enplegu-iturri garrantzitsua bihurtu dira kolektibo horrentzat. Gainera, gizarteratzeko funtsezko eginkizuna dute, laneratzearen bidez: lan egonkor eta ordaindua lortzeko independentzia ekonomikoa errazten du, eta oso eragin ona du gizarteratzeko aukeretan eta pertsonaren autoestimuan. Zentro bereziak kalitate handiko giza taldeetan eta teknologian oinarritzen dira, desgaitasunaren ondoriozko zailtasunak gainditzeko eta lanaren lehiakortasuna bermatzeko.³

2.2.3. Gizarteratze Enpresak

Gizarteratze edo laneratze Enpresak, irabazi asmorik gabeko ekimen ekonomikoak dira, gizartearen baztertuta edo desabantailan dauden eta lan-merkatuan hasteko zailtasunak dituzten pertsona lan-

² <https://bizilan.eus/aniztasun-funtzionala/enplegu-zentro-bereziak/> Azken aldiz kontsultatuta: 2025/03/26

³ https://www.cepes.es/social/entidades_centros_empleo Azken aldiz kontsultatuta: 2025/03/26

gabeei laguntza ematea eta gizartean eta lan-munduan txertatzea da haien helburu nagusia. Enpresa hauek jarduera eta aberastasun ekonomikoa sortzen dute komunitatean, eta konpromiso argia dute tokiko garapena, gizarte-kohesioa eta iraunkortasuna bultzatzeko. Enpresa guzti horiek duten ezaugarri komuna ondorengoa da: ekonomia egitea gizartean desabantailan edo baztertuta dauden pertsonak lan-merkatuan txertatzea lortzeko.

Laneratzeko enpresek «ekonomikoki laneratzeko» xedea duten gizarteratzearen aldeko politiketan eta gizartean esku hartzeko erakundeek ekimenetan dute sorburua, azken urteetan egiaztatu dute-nez, eraginkorrak baitira zailtasun bereziak dituzten pertsonak eta kolektiboak lan-merkatuan txertatzeko.⁴

Enpresa mota hauek arautzeko 44/2007 Legea dugu, laneratzeko enpresen araubidea arautzekoa, eta bertan, gizarteratze enpresa gisa sailkatzeko zein ezaugarri bete behar diren adierazten da (44/2007 Legea, 5.art.):

- Helburu sozialaren xede nagusia lan-munduan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzea eta laneratzeko izatea.
- Irabazi-asmorik gabeko erakunde batek edo batzuek sustatzen dituzte laneratzeko enpresak (zuzenbide publikokoek ere bai), eta haien helburu sozialak egoera bereziki ahulean dauden pertsonak gizarteratzea hartu behar du barne.
- Plantilla osoaren % 50, gutxienez, laneratzeko prozesuan dauden pertsonak izan behar dute.
- Laneratzeko prozesuan dauden pertsonak gutxienez 6 hilabetez eta gehienez 3 urtez egon daitezke laneratzeko enpresan.
- Ekitaldi ekonomiko bakoitzean lortutako soberakin erabilgarriak ekoizpen- eta laneratzeko-egiturak hobetzeari, handitzeari, edo laneratzeko enpresaren funts propioak handitzeari aplikatuko zaizkie, eta sekula ere ez dute mozkinik banatuko. Hau da, irabazi-asmorik gabeko erakundeak izango dira.

Laburbilduz, laneratzeko enpresak pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko tresna gisa sortu ziren. Enpresa-logika eta laneratzeko metodologiak uztartzen dituzten enpresa-ekimenak dira eta ez daude ekonomiaren ohiko prozesuetatik kanpo; izan ere, ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituzte, ingurunea hobetzen dute, pertsonentzako zerbitzuak sustatzen dituzte eta bizi-kalitatea hobetzen dute, errentagarriak eta lehiakorrak izanik. Errentagarritasun ekonomikoa baloratzeaz gain, oso garrantzitsua da alderdi sozialen errentagarritasuna nabarmentzea; izan ere, onuradunak pertsona pasiboak eta mendekoak izateari uzten diote, eta gizarteari ematen diote hark ukatu zien guztia.⁵

3. EAE-KO GIZARTE EKONOMIAREN ERREADIOGRAFIA

3.1. Gizarte ekonomiaren zifra orokorrak

EAE-ko GEren sektoreak guztira (GEFK eta GEBF), 2022. urtean, 5.420 establezimendu inguru zituen EAE- mailan, eta horiek guztira 95.030 lanpostu ordaindu sortu zituzten. Halaber, sektore horrek garatutako jarduerak urte berean 12.000 milioi euro inguruko fakturazio maila izan zuen eta 3.500 milioi euroko Balio Erantsi Gordina (ikusi 2. Taula).

⁴ <https://www.gizatea.net/eu/laneratzeko-enpresak/betekizunak-eta-legeak/> Azken aldiz kontsultatuta: 2025/03/26

⁵ https://www.cepes.es/social/entidades_empresas_insercion Azken aldiz kontsultatuta: 2025/03/26

Genero-ikuspegia Gizarte Ekonomian: Euskal Autonomia Erkidegoko azterketa bat
Dara García Sancristán, Artitzar Erauskin Tolosa

2020rako bildutako datuekin alderatuta, GEren sektoreko establezimendu kopurua gorantz joan da; 2022an, aurreko aldiarekin konparatuta, 353 establezimendu gehiago erregistratu ziren. Era berean, lanpostuetan ere hazkundera izan zen, 7.000 lanpostu berri baino gehiago sortu baitziren. Bestalde, COVID-19aren eraginpean izandako fakturazioaren beherakada gaindituta, GEFK 2020an baino 2.000 mila milioi gehiago lortu zituen 2022an.

2. Taula. EAE-ko GEren zifra orokorrak. 2020 eta 2022

Gizarte Ekonomia Guztira (GEFK eta GEBF)	2020	2022
Establezimenduak (#)	5.067	5.420
Urteko enplegu ordaindua (#)	86.463	95.030
Fakturazioa (milioi €)	10.074	12.046
Soldata eta ordainsariak (milioi €)	3.072	3.224
Emaitzak (milioi€)	206	985
Balio Erantsi Gordina (milioi €)	3.328	3.512

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2024).

3.2. Gizarte ekonomiaren enpleguaren banaketa eta fakturazioa erakundeen forma juridikoaren arabera

Eusko Jaurlaritzak 2022an argitaratutako estatistika ofizialean arabera, GEr buruzko datu nagusiek erakusten dute kooperatibek duten pisu nabarmena forma juridiko ezberdinak dituzten erakundeen artean (ikusi 3. Taula). Kooperatibak dira bai erakunde kopuruari dagokionez ugarienak, bai dimentsio ekonomikoari dagokionez esanguratsuenak. 2022. urtean, kooperatibek 55.242 lanpostu eskaini zituzten, GEFKo lanpostu guztien %58tik gora. Era berean, sektoreko fakturazio osoaren %75a baino gehiago kooperatiben jarduerari dagokio.

Enpleguaren analisiarekin jarraituz, kooperatiben ondoren daude fundazioak, 15.011 lanposturekin, guztizkoaren %16arekin. Fakturazioari dagokionez, guztizkoaren %4,5a bakarrik ordezkatzeko dute fundazioek. Antzeko zifrak dituzte enplegu zentro bereziek, 10.345 enplegurekin, enplegu guztien ia %11arekin eta GEren fakturazio osoaren %3arekin.

Lan-sozietateek, aurreko bi erakundeek baino lanpostu gutxiago eskaintzen badute ere, 6.539 zehazki, fundazioek eta enplegu zentro bereziek baino gehiago fakturatzen dute, kopuru osoaren %5,45a. Oso hurbiletik daude Onura Publikoko Elkarteak, 6.595 lanposturekin, eta GEren fakturazioaren %1,84arekin.

3. Taula. EAE-ko GEnen baitako enplegua eta fakturazioa forma juridikoaren arabera. 2022

Entitate motak	Enplegua		Fakturazioa (milioi €)	
	(abs)	(%)	(abs)	(%)
Kooperatibak	55.242	58,13	8.975	74,5
Lan-Sozietateak	6.539	6,88	654	5,4
<i>Guztira Forma Klasikoak</i>	61.781	65,01	9.629	79,9
Fundazioak	15.011	15,80	542	4,5
Enplegu Zentru Bereziak	10.345	10,89	366	3,0
Onura Publikoko Elkarteak	6.595	6,94	221	1,8
Gizarteratze Enpresak	957	1,01	59	0,5
ENSak	187	0,20	68	0,6
Arrantzaleen kofradiak	75	0,08	38	0,3
BGAEEK	79	0,08	1.123	9,3
<i>Guztira Beste Formak</i>	33.249	34,99	2.417	20,1
GUZTIRA	95.030		12.046	


Iturria: Eusko Jaurlaritza (2024).

Bestalde, laneratze-enpresek, eraldaketarako nekazaritza-sektoreek eta arrantzaleen kofradiak enpleguaren % 1, % 0,2 eta % 0,08 biltzen dute, hurrenez hurren, eta GEnen fakturazio osoaren % 0,49, % 0,56 eta % 0,32a. Azkenik, BGAEek, 79 lanpostu eskaintzen dituzte, eta gainerako erakundeekin alderatuta kopuru txikia bada ere, GEnen % 9,35a fakturatzen dute.

3.3. Gizarte ekonomiaren baitan ordaindutako enpleguaren, establezimenduen eta fakturazioaren bilakaera. 2016-2022

Beheko 1. Irudian ikus daiteke 2006 eta 2022 urteen artean EAE-ko GEnen sektoreak izandako bilakaera, enpleguari, fakturazioari eta establezimenduari dagokionez.. Enpleguaren kasuan, 2008ko krisi ekonomikoaren ondorioz beherakada gertatu zen, eta bereziki 2012, 2014 eta 2016 urteetan, langile kopurua 60.000 behera kokatu zen. Hala ere, 2018an krisiaren aurreko enplegu-maila berreskuratu zen.

Establezimendu kopuruari dagokionez, aldagetak apalagoak izan dira aztertutako aldian zehar, egonkortasun handiagoa agertuz. Aldiz, fakturazioaren bilakaera nabarmen aldakorragoa izan da. 2006 eta 2008 artean fakturazioaren emaitzarik onenak erregistratu ziren, baina krisiaren eraginez joera beherakorra nagusitu zen 2020ra arte. Fakturazioak berriro gora egin zuen 2022an, krisi aurreko mailara gerturatuz.

Genero-ikuspegia Gizarte Ekonomian: Euskal Autonomia Erkidegoko azterketa bat*Dara García Sancristán, Artizar Erauskin Tolosa***1. Irudia. GEFKo establezimendu, enplegu eta fakturazioaren bilakaera. 2002-2022**


Iturria: Eusko Jaurlaritza (2022, 2024). Azpimarratzekoa da, GEFK bilakaera motela izan duela 2010 urtetik aurrera. Goiko 1. Irudian ikusi daiteke errekonfigurazioaren eragina, azaletik bada ere, eta argi geratzen da zaila dela aurreko hamarkadan izan zuen joerari eustea, baina, pixkanaka balio horiek berreskuratzen doa EAE-ko GEren sektorea.

4. EMAKUMEAK EAE-KO GIZARTE EKONOMIAREN FORMA KLASIKOAK SOSTENGATUTAKO LAN MERKATUAN

4.1. Kooperatibek eta lan-sozietateek sortutako enpleguaren bilakaera eta garrantzia 2002-2022 epealdian

Aurreko atalean aipatu bezala, forma klasiko gisa sailkatzen diren erakundeek —kooperatibek eta lan-sozietateek— EAE-ko GE sektorean enpleguaren ia bi heren biltzen dituzte. Beheko 2. Irudian ikusi daitekeenez, enplegu horren bilakaerak azken urteotan izan duen aurrerapenari esker, 2022 urteko okupazio maila duela bi hamarkadakoa baino altuagoa da. Hala ere, oraindik ez da gainditu 2008ko krisi ekonomikoaren aurreko enplegu-maila. Hazkunde erritmoari dagokionez, 2020 eta 2022 arteko epena izandako igoera apalagoa izan da COVID-19aren aurreko urteekin alderatuta: izan ere, 2014 eta 2016 aldian enplegua %4,5 hazi zen, eta 2016 eta 2018 aldian %6,3ko hazkundea izan zen.


2. Irudia. EAE-ko enpleguaren bilakaera GEn. 2002-2022



Iturria: Eusko Jaurlaritza (2024).

EAE-ko GEFKo establezimenduetan diharduten langileen kopurua EAE- biztanleria okupatu osoarekin alderatuta, 3. irudian ikusi daitekeen moduan, GEnen pisu erlatiboa % 6 edo handiagoa izan da azken urteetan. Datu horiek, gizarte EAE-ko ekonomia orokorrean duen garrantzia adierazten dute. Hala ere, azken urteetako ekarpen erlatiboa aurreko bi urteetako mailaren azpitik kokatu da, % 1 murriztu baita.

3. Irudia. GEnen enpleguak EAE-ko Ekonomian duen pisu erlatiboaren bilakaera. 2002-2022. (% , EAE-ko enplegu osoarekiko)



Iturria: Eusko Jaurlaritza (2024).

4.2. Emakumeak gizarte ekonomiako lan merkatuan

GEFK aukera esanguratsua eskaintzen du emakumeak lan-merkatuan txertatzeko eta genero-berdintasuna sustatzeko. Emakumeek, gaur egun oraindik ere, hainbat oztopo dituzte enplegua eskuratzeko eta lan-baldintza duinak izateko, besteak beste, zerbitzu sektorearen feminizazioa, soldata-arrakala eta zuzendaritza-karguetan duten ordezkartza eskasa (International Labour Organization [ILO], 2018; European Institute for Gender Equality [EIGE], 2022) pairatzen dutelako. Testuinguru horretan, GEFK —bere izaera solidarioa, parte-hartzailea eta pertsonetan oinarritutako eredu delako medio— lan-ingurune inklusiboagoak eta berdinzaleagoak garatzeko aukera ematen du (Chaves & Monzón, 2017; 2015). Horrek erakusten du GEnen egiturak eta balioak bateragarriak direla genero-berdintasunaren helburuekin.

4.2.1. Emakumeen presentzia lan merkatuan

2022. urtean, EAE-ko ekonomia orokorrean emakumeen enpleguak duen pisua %47,6koa izan zen. Aldiz, GEn Forma Klasikoek – hau da, kooperatibek eta lan-sozietateek- guztira 61.781 pertsona enplegatu zituzten urte berean: horietatik 33.732 (%54,6) gizonezkoak eta 28.049 (%45,4) emakumezkoak. Ondorioz, emakumeen parte-hartzea ekonomia orokorreko datuekin alderatuz gero, %2,2 puntu txikiagoa izan zen 4. Taulan ikus daitekeen moduan.

4. Taula. Enpleguaren banaketa sexuaren arabera. 2022

	EAE-ko Ekonomia Orokorra	Gizarte Ekonomia
Emakumezkoak	47,6	45,4
Gizonezkoak	52,4	54,6

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2024).

Sexuaren araberako enpleguaren banaketa jarduera ekonomiko arloaren arabera aztertzen bada, 2022 urtean GEFKo Forma Klasikoetan zerbitzu-sektorean enplegatutako pertsonen %64,4 emakumezkoak izan ziren. Datu hori EAE-ko ekonomia orokorreko zerbitzu-sektorearekin alderatuz gero, emakumezkoen ordezkartza handiagoa da, izan ere sektore horretan emakumeen presentzia %58,1koa izan baitzen. Industria-sektorean ere, antzeko joera hautematen da: GEn Forma Klasikoetan emakumeen ordezkartza handiagoa da EAE-ko industria-sektorearekin alderatuz, izan ere, lehenengoan lan egiten duten pertsonen %23,7-a emakumezkoa da, bigarrengoan, aldiz, %21,8-a (ikus 5. Taula).

5. Taula. Ekonomia Orokorra eta Gizarte Ekonomiako enpleguaren arloz arloko banaketa, sexuaren arabera (% bertikalak). 2022

	Lehenengo sektorea		industria		eraikuntza		zerbitzuak	
	E.O.	G.E.	E.O.	G.E.	E.O.	G.E.	E.O.	G.E.
Emakumeak	19,3	30,1	21,8	23,7	12,1	9,7	58,1	64,4
Gizonak	79,5	69,9	78,3	76,3	87,7	90,3	41,9	35,6


Oharra: E.O.: Ekonomia Orokorra, G.E.: Gizarte Ekonomia.

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2024).

Nahiz eta egungo ekonomiek, oro har, terziarizazio-prozesu nabarmena bizi izan duten, EAE-ko GEn industria-sektoreak oraindik ere pisu esanguratsua du (ikus 2. irudia). Zehazki, sektore honek GEFKo enpleguaren ia %41 biltzen du, hau da, EAE-ko ekonomia orokorreko industria-sektoreak sortzen duenaren bikoitza. Hala ere, GEn zerbitzu-sektoreak du enpleguaren zatirik handiena (%54,6), nahiz eta proportzio hori txikiagoa izan ekonomia orokorrean zerbitzuen sektoreak duenaren aldean. Kontuan hartuta zerbitzu-sektorea tradizionalki oso feminizatuta dagoen sektorea dela, GEn sektore horren pisu txikiagoak emakumeen parte-hartzeari eragiten dio. Gainera, industriaren

presentzia handiagoak, oro har gizonen kopuru handiagoarekin lotuta egonik, are gehiago murrizten du emakumeen ordezkari-tza. Ondorioz, nahiz eta GE sektoreka aztertuta ekonomiaren gainerakoarekin alderatuz gero emakumeen presentzia handiagoa izan dezakeen arlo jakin batzuetan, hala nola zerbitzuetan edo industrian, emakumeen parte-hartzearen batz besteko orokorra oraindik ere EAE-ko ekonomian baino baxuagoa da.

4. Irudia. Enpleguaren arloz-arloko banaketaren alderaketa EAE-ko ekonomian eta GEn. 2022



Iturria: Eusko Jaurlaritza (2024).

EAE-ko GE osatzen duten enpresen forma juridikoa kontuan hartuta, emakumeek kooperatibetan dute ordezkari-tza handiena, enpleguaren % 47,4 osatuz. Aldiz, lan-sozietateetan emakumezkoen presentzia nabarmen murrizten da: lan-sozietate mugatuetan (SLL) % 32,2koa da, eta lan-sozietate anonimoetan (SAL), berriz, % 22,7koa (ikusi 6. Taula). Datu hauek erakusten dutenez forma juridikoak berak eragina du generoaren arabera enplegu-banaketa-aren egiturari, kooperatibek ingurune inklusiboagoak eta berdinzaleagoak sustatzen dituzte.

6. Taula. Forma juridikoaren arabera enplegu-banaketaren banaketa, sexua kontuan hartuta (% bertikalak). 2022

	guztira	kooperatibak	SLL	SAL
Emakumezkoak	45,4	47,5	32,2	22,7
Gizonezkoak	54,6	52,6	67,8	77,3


Iturria: Eusko Jaurlaritza (2024).

4.2.2. Genero arrakala

Soldata-desberdintasuna terminoak, soldata-arrakala edo genero-arrakala bezala ere ezagutu daitekeenak, erreferentzia egiten dio emakumeen eta gizonen arteko batez besteko soldaten artean dagoen aldeari, oinarriko soldata gisa eta soldataren osagarri eta aparteko modura benetan jasotakoa kontuan hartuz beti. Genero arrakalak, oro har, lan-merkatuan dauden diskriminazioa eta disparekotasunak islatzen ditu, horien ondorioak, praktikan, emakumeengan eragin handiagoa dute (European Commission, 2023). EAE-ren GEn kasuan, 2022 urtean, genero-arrakala % 18,5koa izan zen (5. Irudia). Arrakala hori, nahiz eta oraindik nabarmena izan, txikiagoa da EAE-ko lan-merkatu orokorraren batez bestekoarekin alderatuta, zeina % 22,6koa izan baitzen

Genero-ikuspegia Gizarte Ekonomian: Euskal Autonomia Erkidegoko azterketa bat*Dara García Sancristán, Artizar Erauskin Tolosa*


Emakundek 2020an⁶ egindako kalkuluen arabera. Alde horrek erakusten du GEFKo enpresek, neurri batean behintzat, genero-berdintasun handiagoa sustatzen dutela.

5. Irudia. Soldata arrakala 2022ko GEn vs EAE-ko ekonomian

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2024).

Genero-arrakala zehatzago aztertuz gero, arloz arloko jardueraren arabera desberdintasun nabarmenak antzematen dira EAE-ko GEn barruan (ikusi 6. Irudia). Soldata-arrakala handiena zerbitzuen sektorean agertzen da, non % 20,1era iristen baita. Industria sektorean, aldiz, arrakala txikiagoa da, % 10,8koa.

Datu hauek agerian uzten dute jardura ekonomikoaren sektoreak eragin zuzena duela genero-arrakalan, eta zerbitzuen arloan genero-desberdintasunak nabarmenagoak direla, baita GEn esparruan ere.

6. Irudia. Soldata arrakala GEn, jardueraren arabera. 2022 (%)

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2024).

4.2.3. Emakumeak aginte-postuetan

Jakina denez, emakumeek zailtasun handiak izan dituzte historikoki aginte-postuetara iristeko, eta, nahiz eta azken hamarkadetan aurrerapausoak eman diren, oraindik desoreka nabarmenak mantentzen dira generoaren arabera zuzendaritza- eta erabaki-organoetan.

⁶ «Soldata Arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan» Txostena (2021eko martxoa). Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea.

Emakundek 2022an argitaratutako datuen arabera, Euskadiko biztanleria okupatuaren artean, emakumeen presentzia «zuzendaritza eta kudeatzaile» postuetan % 31koa da. GEn esparruan, nahiz eta emakumeen ordezkartza oraindik ere baxua izan, portzentajea zertxobait handiagoa da: emakumeek presidentetzako postuen % 32,5 eta kudeaketa-postuen % 34 betetzen dituzte (ikusi 7. Taula) baina emakumeek zuzendaritza- eta gobernu-organoetan duten presentzia enpresetako langileen artean duten presentzia orokorra baino txikiagoa da. Hau da, beheko mailako lanpostuetan emakume gehiago dauden arren, goi-mailako erabaki postuetan proportzio hori nabarmen jaisten da, eta horrek oraindik kristalezko sabaia ren presentzia adierazten du.

7. Taula. GEn zuzendaritzako lanpostuen banaketa, sexuaren arabera. 2022


	Presidentzia	Kudeaketa postuak
Emakumezkoak	% 32,5	% 34,1
Gizonezkoak	% 67,5	% 65,9

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2024).

Emakumeen presentzia zuzendaritza eta aginte-postuetan oso desberdina da jarduera-sektorearen arabera (ikusi 7. Irudia). Hirugarren sektoreko edo zerbitzu-enpresetan emakumeen ordezkartza nabarmen handiagoa da, eta 2022an presentzia nahiko orekatua izan zen: kudeaketa-postuetan % 44,9 eta presidentzia-postuetan % 43,5 emakumeek betetzen zituzten.

Aldiz, industriaren eta eraikuntza-sektorearen kasuan, emakumeen presentzia zuzendaritza-postuetan nabarmen txikiagoa da. Industriaren sektorean, hamar aginte-postuetatik bi bakarrik betetzen dituzte emakumeek, eta eraikuntzan ordezkartza askoz ere baxuagoa da, % 6koa izanik. Beraz, sektorearen izaerak eragin handia du zuzendaritza-mailari dagokion genero-ordezkartzan, genero-desberdintasunak sektore batzuetan gehiago nabarmentzen direlarik.

7. Irudia. Zuzendaritzako lanpostuen banaketa arloz arloko jardueraren eta sexuaren arabera. 2022



Iturria: Eusko Jaurlaritza (2024).


Genero-ikuspegia Gizarte Ekonomian: Euskal Autonomia Erkidegoko azterketa bat
Dara García Sancristán, Artizar Erauskin Tolosa

Enpresen forma juridikoaren arabera, emakumeen ordezkaritza aginte-postuetan desberdina da (ikusi 8. Irudia). Kooperatibetan, emakumeek lan-sozietateetan baino aparteko presentzia handiagoa dute: presidentzia-postuetan % 33,6 eta kudeaketa-postuetan % 35,4 betetzen dituzte.

Lan-sozietateen barruan, Sozietate Limitatuetan (SLL) emakumeen presentzia zertxobait baxuagoa da, presidentzia-postuetan % 29,8 eta kudeaketa-postuetan % 30,8koa izanik. Bestalde, Sozietate Anonimoetan (SAL), presentzia txikiagoa da oraindik, presidentzia-postuetan % 24 eta kudeaketa-postuetan % 23,2.

Datu hauek erakusten dute enpresaren egitura juridikoak eta kudeaketa-ereduak eragina dutela emakumeen ordezkaritzan zuzendaritza-mailan.

8. Irudia. Zuzendaritzako lanpostuen banaketa forma juridikoaren eta sexuaren arabera. 2022



Iturria: Eusko Jaurlaritza (2024).

Kontseilu errektoreetan emakumeen presentzia aztertzean, antzeko joera ikus daiteke aginte-postuetan izan diren desberdintasunekin. Normalean, kontseilu errektore bateko hiru kideetatik bakarra emakumea izaten da, hau da, emakumeen ordezkaritza % 33 ingurukoa da.

Sektoreka aztertuz (ikusi 8. Taula), zerbitzu-sektorea nabarmentzen da emakumeen ordezkaritza handiagoa duela, % 43 ingurukoa izanik. Aldiz, beste jarduera-sektore guztietan emakumeen presentzia murrizten da kontseilu errektoreetan.

Honek berretsi egiten du sektorearen eragina emakumeen parte-hartzean eta aginte-postuetan duten presentzian, eta azpimarratzen du oraindik ere desoreka nabariak daudela gobernantza-organoetan.

8. Taula. Organo errektoreen kideen banaketa, sexuaren eta jarduera sektorearen arabera. 2022

	Kontseilua, orotara	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Emakumezkoak	% 34,7	% 26,3	% 25,2	% 9,9	% 42,9
Gizonezkoak	% 65,3	% 73,7	% 74,8	% 90,1	% 57,1

Iturria: Eusko Jaurlaritza (2024).

Laburbilduz, esan daiteke emakumeek gero eta presentzia handiagoa dutela GEren esparruan EAE-an. Erakunde hauek sustatzen dituzten balio parte-hartzaile eta sozialek emakumeen laneratzea eta aktibazio profesionala errazten dute, lan-merkatuan modu inklusiboagoan aritzeko aukera eskainiz. Hala ere, genero-desorekak oraindik ere nabariak dira, bereziki erabakiak hartzeko maila altuagoko postuetan, eta horrek agerian uzten du berdintasun osoa lortzeko erronka oraindik ere presente dagoela sektore honetan (Castro Núñez, Bandeira & Santero-Sánchez, 2020).

5. ONDORIOAK, MUGAK ETA ETORKIZUNEN IKERKETA LERROAK

2022an, EAE-ko GEren sektoreak hazkunde sendoa eta egonkorra izan du, bai establezimendu kopuruan, bai enpleguan eta fakturazioan. Kooperatibek sektore horretan dute presentzia nagusia, lanpostuen eta fakturazioaren proportzio handiena izanik, eta horrek beren garrantzia ekonomiko eta soziala berresten du.

Enpleguaren bilakaeran, krisi ekonomikoaren eta COVID-19aren eraginez izan diren aldaketen ondoren, sektoreak errekupeazio osoa lortu du, nahiz eta hazkunde-tasa moteldu den azken urteetan. GEFK emakumeak lan-merkatura sartzea sustatzen du, genero-berdintasunaren eta inklusioaren aldeko ereduak eskaintzen duelarik; hala ere, GEren sektorean forma klasikoaren kasuan emakumeen presentzia oraindik ere ekonomia orokorraren batez bestekoaren azpitik dago, batez ere zuzendaritza-postuetan eta soldata-arrakalan, non oraindik desberdintasun nabarmenak agerian dauden.

Forma juridikoen arabera analisiak, kooperatibek lan-sozietateek baino ingurune inklusiboagoak eta berdinzaleagoak sustatzen dituztela erakusten du, kooperatibetan emakumeen parte-hartzea nabarmen handiagoa delarik. Lan-sozietateetan emakumeen ordezkartza eta soldata-arrakala kooperatibetan baino okerragoak dira.

Jarduera ekonomikoaren arabera analisiak, bestalde, jarduera adarrak genero-desberdintasunak areagotzen dituela argitu du: zerbitzu sektorean emakumeen presentzia handiagoa da, aldiz, industria eta eraikuntza sektoreetan emakumeen presentzia eta aginte-postuetako ordezkartza txikiagoak dira.

Laburbilduz, GE sektoreak ekarpen garrantzitsua egiten du EAE-ko ekonomian, lan-merkatuaren inklusioan eta genero-berdintasunaren sustapenean, baina oraindik ere erronka handiak ditu soldata-arrakala murrizteko eta emakumeen presentzia zuzendaritza-postuetan handitzeko, sektoreka eta forma juridikoaren arabera desberdintasunak murrizteko neurriak beharrezkoak direla erakutsiz.

Etorkizunari begira, garrantzitsua da GEren sektorearen garapena aztertzea trantsizio digitalaren, ekologikoaren eta sozialaren testuinguruetan. Ikerketa akademikoek arreta berezia jarri beharko lukete trantsizio horiek enpleguaren kalitatean, gobernantza parte-hartzailean eta berdintasun-politiken eraginkortasunean azterketan. Era berean, beharrezkoa litzateke datu desagregatuen eta ikuspegi intersektzionalen bidez aztertzea genero-desberdintasunen egitura sakonak, forma juridiko eta sektore bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz.

Politika publikoen ikuspegitik, komenigarria da berdintasun-irizpideak sistematikoki txertatzea GEren sustapenerako estrategietan, bereziki laguntza-programetan, finantzaketa-lerroetan eta prestakuntza-eskaintzan. Horrez gain, emakumeen lidergo kooperatiboaren eta erabaki-guneetan duten presentziaren indartzea sustatu behar da, gobernantza demokratikoaren ikuspegitik, barne-auditoria eta gardentasun mekanismoak sendotuz.

Azkenik, ikerketa-ildo berriek balio erantsia eskaini dezakete GEren eta politika publikoen arteko elkarrekinaren azterketan, bereziki lurralde-kohesioaren zein lan-merkatu inklusiboaren arteko harremanak sakontzen. Horrek aukera emango luke sektorearen potentzial eraldatzailea hobeto ulertzeko eta etorkizun jasangarriago eta berdinzaleago baterako politika publiko koherenteak diseinatzeko.

6. BIBLIOGRAFIA

- ACI. (1996). *Declaración de la Alianza Cooperativa Internacional sobre la identidad cooperativa: Los principios cooperativos*. <https://ica.coop/es/cooperativas/identidad-alianza-cooperativa-internacional>
- Calderón, B. (2004). Fundaciones y asociaciones en España: Realidad institucional, dimensión económica y factores determinantes de su tamaño. *Mediterráneo Económico*, (6), 160-191.
- Castro Núñez, R. B., Bandeira, P., & Santero Sánchez, R. (2020). Social economy, gender equality at work and the 2030 agenda: Theory and evidence from Spain. *Sustainability*, 12(12), 5192. <https://doi.org/10.3390/su12125192>
- Chaves, R., & Monzón, J. L. (2008). *The social economy in the European Union*. CIRIEC-España.
- Chaves, R., & Monzón, J. L. (2017). *The social economy in the European Union* (CIRIEC No. 2017/03). European Economic and Social Committee. <https://www.eesc.europa.eu/>
- Cuadrado, M., & Ciruela, A. M. (2014). Las sociedades cooperativas y sociedades laborales como motor de desarrollo económico y social: Análisis de su impacto socioeconómico en la región de Andalucía. *REVESCO, Revista de Estudios Cooperativos*, (115), 57-100.
- Defourny, J., & Nyssens, M. (2010). *Social enterprise: What is in a name?* (EMES Working Paper Series No. 10/01). <https://emes.net/publications/working-papers/social-enterprise-what-is-in-a-name/>
- EIGE. (2022). *Gender equality index 2022: The COVID-19 pandemic and care*. European Institute for Gender Equality. <https://eige.europa.eu/>
- Emakunde (2022). *Genero berdintasunari buruzko adierazleak 2022*. Eusko Jaurlaritza. <https://www.emakunde.euskadi.eus>
- Enciso Santocildes, Marta, et al. «Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiari buruzko kontakizuna.» *Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiari buruzko kontakizuna* (2021). <https://www.gezki.eus/pdfs/28f1e930c0.pdf>
- Etxezarreta, E., & Morandeira, J. (2014). Consideraciones conceptuales sobre la Economía Social a la luz de la Ley 5/2011. *GIZA EKOIA - Revista Vasca De Economía Social*, (8), 7-36.
- European Commission (2023). *The gender pay gap situation in the EU*. https://ec.europa.eu/info/policies/justice-and-fundamental-rights/gender-equality/equal-pay/gender-pay-gap-situation-eu_en
- Eusko Jaurlaritza. (2019). *11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Kooperatibena*. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 245.
- Eusko Jaurlaritza (2022). *Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena (2020-2021)*, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Ikertalderekin lankidetzan.
- Eusko Jaurlaritza (2024). *Gizarte Ekonomiaren estatistika eta aurrerapena (2022-2023)*, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Ikertalderekin lankidetzan.
- Fernández, M. E. (2006). Las cooperativas: Organizaciones de la economía social e instrumentos de participación ciudadana. *Revista de Ciencias Sociales*, 12(2), 237-253.
- Hernández, D. (2021). Origen y desarrollo del principio cooperativo de interés por la comunidad. *REVESCO, Revista de Estudios Cooperativos*, (139), 1-25.
- International Labour Organization. (2018). *World employment and social outlook: Trends for women 2018*. <https://www.ilo.org/>

- Martínez, A. (2015). Las cooperativas y su acción sobre la sociedad. *REVESCO, Revista de Estudios Cooperativos*, (117), 34-49.
- Monzón, J. L. (2010a). *Las grandes cifras de la Economía Social en España: Ámbito, entidades y cifras clave. Año 2008*. CIRIEC.
- Monzón, J. L. (2010b). *La Economía Social en España en el año 2008: Ámbito, magnitudes, actividades y tendencias*. CIRIEC.
- Monzón, J. L., & Chaves, R. (2012). *The social economy in the European Union*. CIRIEC – European Economic and Social Committee.
- Morales, A. F., Martín, S., & Lejarriaga, G. (2008). Labour managed firms in Spain. *CIRIEC-España*, (62), 61-85.
- Pérez de Mendiguren, J. C., Etxezarreta, E., & Guridi, L. (2009). Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria: Diferentes conceptos para un mismo debate. *Papeles de Economía Solidaria*, (1), 1-41.
- Utting, P. (Ed.). (2015). *Social and solidarity economy: Beyond the fringe*. Zed Books.